



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA  
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE  
TOLOSALDEA - GOIERRI

# DESGAITASUNEN I. ZINEMALDIA, GIPUZKOAN ETA KOMUNIKAZIO OZTOPOAK HAUSTEA.

Zinemaldiari hasiera emateko, hona hemen betebeharreko **OINARRIAK**:

1.- 2018ko azaroaren 8tik 16ra, Gipuzkoako hainbat hiri eta herri ezberdinetan ikusgai izango dira aukeratuak izan diren filmak. Azaroaren 16an, Tolosako Kultur Etxean epaia jakitera emango da eta ondoren Zinemaldiaren sari banaketarekin amaituko delarik.

Epaileek emango dituzten sariak, ondorengoak izango dira:

- **Film luzea, pelikula edo dokumental onenaren saria: 250 euro eta ziurtagiria**
- **Film ertain onenaren saria: 250 euro eta ziurtagiria**
- **Film labur onenaren saria: 250 euro eta ziurtagiria**
- **Desgaitasunari buruzko film onenaren saria: 250 euro eta ziurtagiria**
- **Ikasleak (Gizarte Langintza eta mendekotasun arlokoak) epaile gisa emandako saria: ziurtagiria**
- **OHARRA: Film laburrak, film ertainak, film luzeak, pelikulak eta dokumentalak animazioak izan daitezke.**

2.- Aurkezten diren pelikula eta dokumentalak, edozein ikus-entzunezko formatuan egin daitezke beti ere HD formatuan edo formatu baliokidean aurkeztu behar direlarik. Antolatzaileei ematen zaien kopia, bertako zinemaldiaren ondare bezala geratuko da.

3.- Ezingo da iragarki edo inolako publizitaterik aurkeztu Zinemaldian zehar aurkeztuko diren lanetan.

4.- Aurkeztu ahal izango diren filmen iraupena honakoa izango da:

- **Film laburra: 5 minutu gutxienez eta 30 minutu gehienez**
- **Film ertaina: 30 minutu gutxienez eta 60 minutu gehienez**
- **Film luzea: 60 minutu gutxienez eta 90 minutu gehienez**
- **Filmaren atalari dagokion denbora igaro ezker, aurkeztutako lanak ezin izango du Zinemaldian parte hartu.**

5.- Aurkeztutako lan guztiek ondorengo informazioa izan beharko dute:

- **Izenburua.**
- **Iraupena.**
- **Formatu originala.**
- **Zuzendariaren izena.**
- **Aktoreen zerrenda.**
- **Fitxa teknikoa**
- **Errealizazio data.**
- **Laburpena**
- **Desgaitasunarekin lotura \*.**
- **Beste datu interesgarri batzuk.**
- **Kontakturako telefono zenbakia.**
- **E-maila.**

\* Desgaitasunarekin inongo loturarik ez bada agertzen, epaileek **EZ** dute filma baloratuko.

Zinemaldian zehar, filmaren promozioa egin ahal izateko, filmaren sekuentzia baten bi argazki eta kartela (izanez gero) aurkeztu beharko dira. Behean agertzen diren fitxak eta datuak bete beharko dira. **(ERANSKINAK). FILMAK AURKEZTEKO AZKEN EPEA: 2018KO UZTAILAK 31.**

6.- Filmak edozein hizkuntzatan aurkeztu daitezke, beti ere **gaztelerazko azpigituluak txertatuak** dituelarik. (Derrigorrezko oinarria izango da pertsona gorak kontuan hartzeko).

**7.-** Aurkezten diren filmak edozein gairi buruzkoak izan daitezke, beti ere, desgaitasunarekin lotura izanda. Honela, aktoreak, zuzendaritza edo pertsonal teknikoak ere lotura izan dezake gaiarekin.

**8.-** Aurkeztu beharreko lanak, dokumental, animazioa edo gidoi moldaketa izan daitezke. Filmak egile-eskubideak izanez gero (musika, gidioia, ...) gastuak norbere kontu izango dira (Filmaren jabeak edo arduradunak ordaindu beharko ditu). Zinemaldiko arduradunei aldeztu aurretik abisatu beharko zaie.

**9.-** Adin txikikoen parte hartzea badago filmetan, antolakuntzari aurrez adierazi beharko zaio eta beharrezko baimen legalak aurkeztu beharko dira. Honela izan ezean, antolakuntzak ez du inolako ardurarik hartuko eta beti ere hau egileen esku geratuko da.

**10.-** Zinemaldira aurkeztutako filmen zuzendariak eta/edo arduradunek baimentzen dute, GAINDITZEN Tolosaldea - Goierriko Gorren elkarteari, hauen hedapena komeni zaien bezala eta doakoa (zinemaldiaren sariaz gain) GAINDITZEN elkarteak etorkizun batean antolatu beharreko emanaldietan berauek ikustarazteko.

**11.-** Zinemaldian proiektatuko diren filmen arduradunek, bertako antolatzaileak izango dira eta hauek aukeraketa egingo dute. Epailak aukeratzea ere, antolatzaileen ardura izango da.

**12.-** Epailen erabakia onartuko da eta eztabaida ezina izango da.

**13.-** Jasotako film guztietatik, hautatzen diren finalistak sari ezberdinetarako aukeratuak izan daitezke.

**14.-** Zinemaldi honetan parte hartzeko oinarri guztiak onartzen dira.

**15.-** Zinemaldiko antolatzaileak, pelikula hautatuekin harremanetan jarriko da beharrezko aurrerapenarekin, beraien filmen aurkezpena pertsonala egiteko.

Irabazleei aurrez abisatuko saridun izan direla. Saria pertsonalki jaso beharko da edo bestela taldeko beste pertsona bat izendatuko da. Sari ematera ez bada filmaren ordezkari agertzen, sari ekonomikoa jasotzeko eskubidea galduko du eta beste sariak jasotzeko ordaindu beharreko gastuak beraien kontura izango dira.

**16.-** Oinarri hauetan agertzen ez den kontuen inguruko ebazpenen bat hartu beharra izanez gero, Zinemaldiaren zuzendaritzak izango du eskubide hori eta ezingo da inolaz ere erabakia atzera bota, beti ere film zinemaldiaren mesedetan badira.

**17.-** Izena ematerakoan GAINDITZEN elkarteari baimentzen diot, egin beharreko publizitatea egiteko bai telebistan, web orrietan, blog, Youtube, Facebook, etab. Honetarako, pelikula bakoitzeko gehienez minutu bateko emanaldia egin ahal izango du eta argazki batzuk ere bai. Etorkizunean antolakuntzak filmak aurkeztu ahal izango ditu, beti ere helburu hezitzaile eta irabazi gabea izaten badira. Bestalde, egunean bertan egiten diren argazki eta bideoa publikoak izango dira antolakuntzarentzako.

**18.-** Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa izango da hauetako plataforma batean izen ematea:

- **Festhome.com** edo **movibeta.com**

Filmak bidaltzeko beste modu batzuk:

- **Wetransfer-eko** gmail kontura (**festivaldiscapacidadgi@gmail.com**).
- **USB/Pendrive** posta bidez honako helbidera:

Asociación de Personas Sordas de Tolosaldea-Goierrri (GAINDITZEN).

Apartado de Correos, 55. 20400

Tolosa (ESPAÑA)

**Bidali diren USB/Pendrive-ak ez dira itzuliko, bertan geratuko dira.**

# INSKRIPZIO ORRIA.

## DESGAITASUNEN I. ZINEMALDIA.

ZENBAKIA: (EZ BETE)

JAUN / ANDERE \_\_\_\_\_, FILMA

BIDALTZEN DUT:

- IZENBURUA:
- NAZIONALITATE:
- GENEROA:
- IRAUPENA:
- PRODUKTOREA:
- ZUZENDARIA:
- GIDOIA:
- MUSIKA:
- SOINUA:
- HIZKUNTZA:
- AZPITTULUAK:
- ARGAZKI ZUZENDARITZA:
- KAMERA:
- MUNTAIA:
- ERREALIZAZIOA:
- FORMATU ORIGINAL:

LABURPENA:

**TELEFONO ZENBAKIA:**

**E-MAILA:**

**BANAKETA:**

**DESGAITASUNAREKIN ERLAZIOA DUEN FILMA: (ATAL HAU NAHITANAIEZKOA DA, BESTELA EZINGO DA LEHIAKETAN PARTE HARTU)**

2018ko urtean, GAINDITZEN asoziazioak ospatuko duen desgaitasunen zinemaldian parte hartzeko, dagozkion datu tekniko eta aurretik aipatutako oinarriak onartzen ditudanik, lehiaketan parte hartzeko eskaera egiten dut.